



## LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2019-06-06

BILERA ZENBAKIA:60

ORDUA ETA LEKUA: 18:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Javi, Maider, Leire, Aiora, Marijo, Itziar

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

1. AZKEN AKTAREN ONARPENA.
2. HARRERA EGUNA
3. GUZTION HERRIA.
4. BERDINTASUN PLANA.
5. ETXEBIZITZA SOZIALAK.
6. BESTEAK.

#### 1. AZKEN AKTAREN ONARPENA

Azken akta onartu da.

#### 2. HARRERA EGUNA

Harrera egunean joango diren pertsonen kontaketa egin da, erosketak antolatu dira eta egin beharrekoen erreposoa egin da: Esku orria eguneratu, prentsa, elkarteekin kontaktatu.

Harrera egunaren harira aldizkarirako artikulu labur bat egitea planteatu da.

#### 3. KOMUNIKAZIOA. PANTAILA:

Egiten diren ekintzak pantailan jartzeko moduaren inguruan hitz egin da, zuzenean lantaldeko kide batek egin edota Izaroren bidez egitea hobe ote den planteatu da. ardura printzipio finkatu dira herri mailan: Herri identitatea, guztion herria eta herritik herritarrentzat.

Egingo diren ekintzak Izarori helarazi eta berak pantailetan informazio hori jartzea adostu da, era egokiena dela baloratu delako.



#### **4. PAREKIDETASUNA ETA AUTODEFENTSA TAILERRA:**

Tailerrerako izen ematea watsap bidez egitea planteatu da. Kartela jarriko da eta pantailan helaraziko da informazioa, apuntatzeko telefono zenbakiarekin, ekainaren 19 arte izango da izena emateko aukera. Adin tartea 12-18 izango da eta 20 pertsona joan ahal izango dira gehienez.

Tailerra egingo duen elkarteak, Emaginek, fitxa batekin batera, urteetan parekidetasuna eta indarkeria matxista lantzeko egin diren ekintzen inguruko informazioa eskatu du eta zerrendatu egin dira:

- 2015 Autodefentsa tailerra.
- 2016 Eskolan tailerrak.
- 2018 Eskolan eta guraso elkartearekin tailerrak.
- 2018 Jolas parekideak.
- 2018 Topagunea.

FitxaIndarkeria matxistaren inguruko Goierriko protokoloa web orrira igotzea planteatu da. herrian egiten den ekintza oro printzipio horiek kontutan hartuta.

#### **5. UDAKO KANPAINA. ESKOLA KIROLAK**

Udako kanpainarako zailtasun ekonomikoak dituzten familiei matrikula errazteko udal beka ematea planteatu da. Belenekin hitz egingo da finantzaketa era zehazteko.

Beka jasotzeko baldintza:

- DSBL (RGI) Laguntzaren onuradun izatea.
- Udal Larrialdietako Laguntzak jasotzea.
- Diru iturririk ez izatea.
- Udalean erroldatuta egotea.

Datorren ikasturterako estra eskolarrak antolatzeko aukeren inguruan hausnartu da. Legorretan zerbait egiten ote den begiratu eta egon daitezkeen aukeren inguruan balorazio bat egitea planteatu da. Edozer gauza planteatzen dela ere kontutan hartu beharko Itsasoko betaurrekoekin egitea.

- Herritik herriarentzat: Bertako biztanleriaren jakintzez baliatu.
- Guztiontzat: Matrikula behar ote duen, zein prezio, etab. erabaki beharko da.
- Anitza: Herriko aniztasuna kontutan hartuko du.
- Herri nortasuna: Herriko ezaugarrien baitakoa izango da, herri nortasuna



indartzea ahalbideratuko duena.

## 6. ESKOLAREN PARTE HARTZEA HERRIAN:

Eskolatik planteatu da haurrek herriko lantaldeetan parte hartzeko aukera, bertako funtzionamendua ikusi, eta eskaerak nahiz proposamenak egiteko bidea irekitzea. Helburua, haurrek herriko egiturak ezagutu, hauen funtzionamenduaren berri izan eta herritar bezala parte hartze sistema ezberdinak eta iradokizunak egiteko moduak lantzea da.

Haurren iritzia parte hartze sistemetara heltzea ere du helburu proposamen honek.

## 6. BESTEAK:

**Memoria tailerra:** maiatzean bukatzen zen baina eman ez zen saio bat errekeratzeko ekainean ere eskainiko da tailer bat.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
<b>HURRENGO BILERA</b>		
2019ko uztailaren 11n		
Jorratuko diren gaiak:		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aktaren onarpena.</li> <li>• Harrera eguna balorazioa.</li> <li>• Bokata jana.</li> <li>• Udalekuak.</li> <li>•</li> </ul>		